


## OWW (One With Words)

*“Zeinuak eta hitzak bat”*



# ONE WITH WORDS

*Egileak: Fady Yattara, Naroa González, Izar Collantes eta Elene Rodríguez*

# AURKIBIDEA

<b>0. GURE IDEIA</b>	<b>3</b>
<b>1. BALIO PROPOSAMENA</b>	<b>4</b>
<b>2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA: BEZEROAK</b>	<b>5</b>
<b>3. FUNTSEZKO ELKARTEAK:</b>	<b>6</b>
<b>4. IRABAZI ITURRIAK</b>	<b>7</b>
<b>5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK</b>	<b>9</b>
<b>6. BEZEROEKIKO HARREMANA</b>	<b>10</b>
<b>7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK</b>	<b>11</b>
<b>8. KOSTU EGITURA</b>	<b>12</b>
<b>9. FUNTSEZKO JARDUERAK</b>	<b>14</b>

## 0. GURE IDEIA

Zeinu-hizkuntza irakurri eta ahots bat erreproduzitzen duen makina bat, hizkuntza eta ahotsa alda daitekena, mutuentzako baliagarria.

Idea hau sortu genuen, mutuek ezin dutenez hitz egin, eta normalean zeinu-hizkuntza ulertzen ez duen pertsona batekin komunikatzeko zailtasun handiak dituztenez, honek guri zein haiei laguntzeko aukera ematen digulako. Bestalde, “**OWW**” izena jarri genuen **One With Words**-en siglak direnak eta ingelesez jartzea erabaki genuen enpresa internazional bat izateko asmoa dugulako, eta modu horretan denek ulertzeko eta gogorarazteko erraztasun gehiago izango dute. Horretaz gain, zeinuek eta hitzek bat egiteko prozesuan laguntzen dugulako, jarri genuen izen hau.

Gure bezeroek gure produktua online erosteko aukera izango dute, eta denda fisikoan, gainera, produktua bezero bakoitzaren gustura egingo da; izan ere, produktua erostean, diseinua aukera dezakezu. Produktua pertsonaren eskuaren tamainaren edota bazkidearen adinaren arabera fabrikatzen dugu.

Pertsonaren eskuaren mugimenduen bidez, guk eskainitako produktuak sentsoreak erabiltzen ditu mugimendu horiek irakurtzeko eta informazio hori gure sorkuntzaren prozesadorera bidaltzen du eta bertan esku mugimenduen arabera ahots baten bidez erreproduzitzen dira hitz eta esaldi ezberdinak. Gure helburua da mutuak komunikatzeko erraztasun gehiago izatea, gure asmakuntzari esker.

